



4. DIRU-SARRERAK

Enpresak izango dituen diru-sarrerak, bezeroek gure zerbitzuengatik ordaindutako kantitateetatik etorriko dira. Bestalde, aplikazio hau instalatzen duen jende kopurutik etorriko dira (zenbat eta jende gehiagok instalatu, orduan eta diru gehiago). Bezero horiek banakakoak edo herri edo ikastetxe jakin batekoak izan daitezke.

Izan ere, udalei, ikastetxeei, enpresei... Hauei guztiei osasun mentaleko saioak eskainiko dizkiegu beren herritar, ikasle edota langileentzako. Horrela, enpresatik diru sarrera lortuz.



Horri dagokionez, gure bezeroen kopuru ezberdinen inguruko hurbilketa bat egin dugu, eta ondorioztatu dugu enpresak gure bezeroen % 30 ikastetxeak, % 40 udalak eta gelditzen den % 30a pertsona indibidualak izango direla.

Gure bezeroek, gure zerbitzuengatik ordaintzeko modu ezberdinak izango dituzte. Online zerbitzu bat eskaintzen dugun heinean, ordaintzeko modua ere online izango da, txartelaren bidez, Bizum edo Paypal bidez edo transferentzia bat eginez. Modu honetara, ordainketan era arin eta erraz batean burutuko dituzte, guri ere kontabilitatea erraztuz.

Ordainketak, ordainketa bakarraren bidez edo zatika egin ditzakete, batez ere erakunde edo enpresek, diru kantitate altuagoak izan daitezkeelako. Hauentzako erraztasunak jarriko ditugu, hilabeteroko ordainketak eginez edo diru kantitate batetik aurrera, deskontuak aplikatuz.

Hasiera batean gure enpresak inbertsio handia egingo du, denak funtzionatu dadin. Beraz, hori kontuan hartuz, hasieran ez dugu soldatarik edukiko, hasierako diru-iturriak inbertitutako gastuak estali beharko baiditu. Hala ere, hilabetero irabazi ahalko dugunaren estimazioa egin dugu, hau da, salmenta aurrekontu bat ,eta dena pentsatzen dugun bezela aurrera joaten bada, gutxi gorabehera lauron artean 50.000€ inguruko diru sarrera lortuko genuke.

Guk uste dugu jendea ordaintzeko prest egongo litzatekeela, azken finean, psikologoa izateko, 50 eta 60 euro artean ordaindu behar duzulako orduko, eta gizarte segurantzian, berriz, doakoa den arren, eskaintzen den zerbitzua ez da nahikoa. Guk psikologia-zerbitzu bat eskaintzen dugu, askoz merkeagoa eta maizago den pribatu batena bezain ona, uste baitugu gaur egungo osasun mentalaren egoera ez dela nahikoa.